

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 2504

*HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2013ko maiatzaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, Gaixotasun Arraroei buruzko Aholku Batzordearen osaera eguneratzeko dena».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira Osasuneko sailburuaren 2013ko maiatzaren 6ko Aginduan (2013ko maiatzaren 22ko EHAA, 97. zk.). Agindu horren bidez, Gaixotasun Arraroei buruzko Aholku Batzordearen osaera eguneratu zen. Bada, jarraian zuzendu egiten dira hutsak:

Gaztelaniazko testuan, 2013/2382 (1/2) orrialdean, hirugarren puntuan,

Honela dio:

« ... actuando como suplente en los casos de vacante, ausencia o enfermedad, Dña. M.<sup>a</sup> Luisa Aretagoitia González.»

Baina honela esan behar du:

« ... actuando como suplente en los casos de vacante, ausencia o enfermedad, Dña. M.<sup>a</sup> Luisa Arteagoitia González.»